

III. FORO TEMATIKOA BILBO METROPOLITARRAREN LURRALDE PLAN PARTZIALAREN BERRIKUSPENEAN: INTEGRAZIOA ETA BIRSORKUNTZA HIRI- ERALDAKETAKO PROZESUETAN

Data: 2017/02/07

Lekua: La Bolsa eraikina; Pilota kalea, 10, 48013 Bilbo

Iraupena: bi ordu eta erdi

Bertaratutakoen kopurua: 31

BFaren ordezkariak

Izena	Kargua
Ángel Anero Murga jn.	Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusia

Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Ana Izquierdo Lejardi and.	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Jon Aguirre Such jn.	Paisaje Transversal
Aida López Urbaneja and.	Inguru, Ingeniería y Gestión Ambiental
Elsa Ibarra Albizu and.	Paisaje Transversal

Aurkezpen Instituzionala

Ángel Anero Murga jaunak, Bizkaiko Foru Aldundiko (BFA) Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko zuzendari nagusiak, saioa hasi du Bilbo Metropolitarraren LPParen berrikusketaren hirugarren Foro Tematikora bildutakoei ongietorria eginez. Berrikusketa hori BFDko Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen Kohesioa Sustatzeko Sailak darama aurrera.

Horren ondoren, **Foro Tematikoaren dinamikari** buruzko azalpen labur bat egin du, eta, LPParen diagnostiko- eta aurrerapen-fasearen barruan, herritarren aldetik informazioa jasotzeko beste bide batzuen berri eman du. Horien artean, Bilbo Metropolitarraren Eremu Funtzionaleko 35 udalerrietan zehar dabilen **Erakusketa Ibiltaria** aipatu du, baita proiektuaren webgunean herritarren esku dauden bide birtualak eta sare sozialak ere.

Foro Tematikoaren egutegia ere gogorarazi du. Honako saio hauek aipatu ditu: urtarrilaren 10 eta 24ko saioak, Paisaiari eta Mugikortasunari buruzkoak hurrenez hurren; gaurkoa, otsailaren 7koa, Hiri-eraldaketaren Prozesuen barruko Integrazioari eta Biziberritzeari buruzkoa, eta otsailaren 14an egingo dena, hau da, Lurralde Inklusiboari, Euskarari eta Osasunari buruz.

Jarraian, **hizlariak aurkeztu** ditu:

Arantxa Quintana, arkitekto doktorea (Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoa).

Hika Arquitectura estudioaren kide fundatzaile modura, 19 urteko esperientzia du eraikuntzako eta hirigintzako proiektuak idazten eta kudeatzen, baita obrak zuzentzen ere. Halaber, arkitektura-proiektuen irakaslea da Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan, Urban Regeneration Forum 2016ko batzorde teknikoko kidea, COAVNren Lurralde Batzordeko eta Kulturako, Komunikazioko eta Kanpo Harremanetako kidea eta COAVNren Bizkaiko ordezkari zuzendakari kulturako bokal hautetsia.

Fernando Hevia Suárez, Goi Arkitekturako tituluduna, hirigintzan espezializatua (Bartzelonako Goi Eskola Teknikoa).

Bere ibilbidea Katalunian hasi zuen, 1975ean; 1982an, Araban, Laudioko Udaleko arkitekto-lanpostua bete zuen, eta Laudioko, Elorrioko, Arrankuadiagako eta Zumarragako plangintza orokorraren berrikuspenean parte hartu zuen. Eusko Legebiltzarreko 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeen eta 1/2006 Urari buruzkoaren idazkuntzan parte hartu zuen, baita aurreko legegintzaldiko Etxebizitzari buruzko Legearen idazkuntzan ere.

Fernandok aholkulari lanak egin ditu IHOBE, EUDEL eta EHUko, besteak beste, baita irakasle-lanak ere Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundean, Ekologistak Martxan taldearen Ekoeskolan eta Hiri Garapena eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko EHUren lantegietan.

Halaber, zenbait plataformatako auzo-mugimenduetako aholkularia da, eta Betsaide Elkarteko lehendakari. Elkarte horrek Lurralde Ordenamendu Iraunkorraren alde egiten du.

Azkenik, hizlariari eskerrak eman dizkie Bilbo Metropolitarraren LPParen berrikuspenerako Foroetan parte hartzeagatik, eta hitza eman dio lehen parte-hartzaileari.

Adituen azalpenak

Arantxa Quintana andereak eskertu egin du saioan parte hartzera gonbidatzeagatik, eta hitzaldirako aukeratu duen gaia aurkeztu du: **Itsasadarraren ubidearen biziberritzea**

Azaldu duenez, gai hori aukeratu du Arkitektura eta Hirigintza Foroan, Uraren inguruko Egoera Berriei buruzkoan, zuzenean parte hartu ondoren ateratako ondorioak direla eta. Foro hori Bilbon egin zen, 2016ko uztailean, eta eztabaida, batez ere, gai hauen inguruan izan zen: portuaren eta hiriaren arteko lotura, ibai inguruetako fatxadak edo *waterfronts* eta ibai inguruei zer erabilera berri eman. Bestalde, eskualdearen hiri-garapenean itsasadarra bizkarrezurra dela ere oso kontuan hartu du gaia aukeratzeko orduan.

Zenbaitetan, uraren inguruan nahikoa hitz egin dela eta gai hori jada agortuta dagoela pentsatzen dugu, baina oraindik ere horren inguruan arlo asko daude aztertzeko. Ibai-bazterrak aztertu eta eraldatu izan dira, baina **itsasadarraren ubidea oraindik ere biziberritzeko dago**.

Hizlariak azaldu du hiriaren eta itsasadarraren historia banaezinak direla, eta **Bilbo hiriaren garapena portu bereziari esker izan dela** (portuak lehorrean 14 km barrura egiten zuten). Hasieran, ez zegoen lurralde komun baten identitatea eratuko zuen lurralde kohesionaturik, harik eta 1923. urtean Ricardo Bastidak, aurreikuspen egoki batez, **Udalerri Mugakideekiko Lehen Lotura Plana** planteatu zuen arte, non itsasadarra eskualdearen ardatz egituratzailatzat jotzen zuten. Ikuspegi berri horren ondorioz, Bilboko Hiri Zabalgunerako Planak eratzen hasi ziren, baita orduko hiriari zein eremu anexionatu ahal zitzaizkion planteatzen ere. Metropolitarr mailako lehen plana **1943ko Bilboko Eskualdearen Antolamendurako Plan Orokorra** izan zen, eta hor aurreikuspenak motz geratu ziren; izan ere, ondorengo hamarkadetan hiriak hazkunde demografiko eta industrial handia izan zuen. Eskualdearen antolamendua kontuan hartzen zuten lehen planak hauek izan ziren: **Uholdeak Prebenitzeko Plan Integrala, 1992koa eta Itsasadarraren Saneamendurako Plan Integrala, 1979koa**. Seguruenik, 2006ko Lurralde Plan Partzialean (LPP) ageri da lehen aldiz *waterfront* deritzona hirian biziberritzeko dauden eremuen barruan, betiere itsasadarrari emanda benetako protagonismoa eta garrantzia.

Itsasadarraren antolamenduaren historia azaldu ondoren, hizlariak **itsasadarraren ubidea biziberritzeko** gaiari heldu dio zuzenean. "Itsasadarraren hutsune handia" aipatu du, erreferentzia eginez hirigintza-jardunean ubideak ingurune fisiko modura izan duen arreta eskasari, ibai-bazterrak izan duenarekin alderatuz gero.

Hizlariak azaldu duenez, **beharrezkoa da erregistro berriak aurkitzea** itsasadarraren ubidearen gaiari beste moduz batez heltzeko. Alde batetik, ubidera heltzeko moduak erraztu behar dira, eta, bestetik, baita herritarrek era naturalean ur-lamina erabiltzekoak ere. **Itsasadarra modu naturalean erabiltzearen garrantzia azpimarratu du**, jarduerarik gabeko espazio hutsa bihurtu baita. Posible da ubidea berriro naturalizatzeari buruz pentsatzea, konponbide iraunkorragoak aurkitze aldera, batez ere hirigunetik igarotzen den zatian. Horretarako, **diseinu-estrategiak behar dira uraren presentziari garrantzia emateko**, uraren inguruan bizitzeko eta paseatzeko, baita garraibide modura erabiltzeko ere.

Biziberritzeak, bai ubidearena bai ibai inguruko fatxadena, **eraikinen prezio-igoera eta jada**

finkatuta dauden hiriko kokalekuen **gentrifikazioa** eragin dezake; izan ere, oso leku erakargarria da herritar guztientzat.

Hitzaldia amaitzeko, esan du garrantzitsua dela itsasadarraren, haren inguruaren eta ubidearen gaiari heldzea, beste leku batzuetan erabilitako kontzeptuak eta praktika onak baliatuz, **Bilboko eta eskualdeko espazio publiko berria** izan dadin. Ontzi-etxebizitzak, kale-funtzioa izango duten ubideak edota aldi baterako erabilera-guneak, hala nola ur gaineko instalazio artistikoak, besteak beste.

Ángel Anero Murga jaunak eskerrak eman dizkio Arantxari, egindako ekarpenengatik, eta hitza eman dio hurrengo hizlariari.

Fernando Hevia Suárez jaunak Arantxa Quintanaren txanda hartu, eta eskerrak eman ditu saiora gonbidatzeagatik.

Lehenik eta behin, **Betsaide Elkartearen sorrera** azaldu du: teknikari-talde bat da, Euskal Hiria 2015 kongresuaren eta zenbait anbigutasun atzeman ondoren sortua. Kongresu hori Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) herritarrek parte hartzeko prozesuaren lehen fasean antolatu zen. Dena den, azaldu duenez, anbigutasunak argituz doaz, batez ere Euskal Hiria 2016 kongresuan parte hartu ondoren. Anbigutasun horiek **lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren iraunkortasunaren** arteko loturari eragiten diote, baita lurralde-plangintza partzialaren eta LAGen izaera lotesleari ere, batez ere 1997tik 2007ra bitarte etxegintzan izandako burbuilaren eraginak ikusi ondoren.

Iraunkortasun-printzipioa definitu du: "Baliabideak eskasak direnean xahutu behar ez direla dioen baliabideen kudeaketa-printzipioa da". Printzipio hori ez da argi eta garbi formulatuta ageri LAGetan. "Hirigintza-legeetan eta estatukoetan modu orokorrean sartzen ari den printzipioa da, baina zehaztasuna falta da". Betsaide Elkartekoen ustez, zehaztasun hori **LAGetan eta LPPetan erabaki beharra dago**, hau da, erabaki behar da lurraldearen antolamenduak nola ager dezakeen modu zehatz eta loteslean iraunkortasun-printzipioa.

Hala, Betsaide Elkartek proposatutako 5 planteamendu lotesle agertu ditu:

Lehena, urbanizatuaren kolmatazioaren baldintzapean ezartzea lurzorua edozein eraldaketa. Horrekin adierazi nahi izan du gaur egungo etxegintza-kuantifikazioaren plangintza ez datorrela bat iraunkortasunaren printzipioarekin, lurzorua eskaintza areagotzen baitu aurretik dagoen lurzorua erabat erabili eta leheneratu baino lehen. Azaldu du lurzorua urarekin edo energiarekin pareka daitekeen baliabidea dela, eta, horrenbestez, haiek bezala, ez dela xahutu behar; alegia, "lurzoru urbanizatuaren hedadura areagotu aurretik, lehentasuna izan behar luke jada urbanizatuta dagoen lurzorua kudeaketak". Haren ustez, LAGa eta LPPa berraztertu egin beharko lirakeke, izaera loteslea kontuan har dadin, eta, hala, iraunkortasun-printzipioa garatu eta udalerriek betetzera behartuta egon daitezten.

LAG eta LPPetan hiri-perimetroaren irizpidea agertzeak, oso gainetik bada ere, bide horretan aurrerapausoak ematea da. Ideia haxe da: hiri-hazkundearen perimetro bat ezartzea eta perimetro horren barruko lurzorua baliabideak aztertzea, etorkizunerako plangintza egin ahal

izateko. .

Bigarrena, jada urbanizatuta dagoen lurzoruan bete gabe dauden eremuen optimizazioa edo kolmatazioa. Elkartekoen ustez, egokia litzateke printzipio hori loteslea izatea, gaur egungo planek justu kontrakoa egiten baitute hiri-lurzorua eguneratzeko orduan jarduera integratuen unitateak baino ez dituztenean kontuan hartzen. Haren ustez, “kuantifikazioak ahalik eta zehatzena izan behar du, eta hainbat hobe araudia zorrotz betetzea”, etorkizuneko eskaera-beharra zenbatekoa izango den zehazten duen taldeak aurreikuspen errealista bat egin dezan. Horrenbestez, bigarren neurri loteslea hauxe litzateke: hiri-perimetroaren barruko jarduera-lehentasunak zehatz-mehatz definitzeaz gain, dauden horniduretan jarduera guztiak ere zehatz-mehatz kuantifikatzea perimetroaren barruan.

Hirugarrena, hirigintza-garapenerako gutxienekorik ez izatea. Kontuan hartuta iraunkortasun-printzipioaren arabera lurzorua ez dela xahutzen, udalerrak lurzorua beren benetako beharren gainetik birkalifikatzera behartzea iraunkortasun-printzipioaren kontra jardutea da.

Laugarren printzipioa: etxebizitza-eskaintzaren gehienekoen eta gutxienekoen metodoaren orde, hiria biziberritzeko helburu batzuk zehaztu, jarduteko lehentasuna hiri-perimetroaren eta biziberritzeko lurzoru-portzentaje baten barruan izan dadin. Azaldu duenez, etxebizitzaren kuantifikazioarekin gertatzen denarekin ez bezala, ez da ona hiri-biziberritzearen gehieneko mugarik egotea; izan ere, biziberritze-prozesuan lurzorua berrerabili egiten da eta, gainera, jarduerak hiri-perimetroaren barruan izaten dira.

Bosgarren printzipioa: landa-lurak babesteko figura lotesleak LPPan ere lotesle modura onartu beharko lirateke. Lurralde-plangintza partzialaren lehentasunari buruz jurisprudentzian dagoen lausotasunak, arlokako lurralde-plangintzaren aldean, zehaztua izan behar du, hau da, “benetan lotesleak ez diren LPPko xedapenek ez dute babeserako arlokako lurralde-plangintzan lotesle direnen gainetik egon behar”.

Ana Izquierdo Lejardi andereak bi hizlari berritoki eskerrak eman dizkie egindako ekarpenengatik, eta azaldu du biak ere bertan izango direla saioak irauten duen bitartean, eta galderak egin ahalko zaizkiela edozein zalantza argitzeko. Hizlarien eta bertaratutakoen artean berriketaldi labur bat izan ondoren, Jon Aguirre Suchi (Paisaje Transversal) eman dio hitza, lan-dinamika azaldu dezan.

Jon Aguirre Such jaunak, labur-labur, hiriaren birdentsifikatze, birgaitze eta eraberritze kontzeptuak argitu ditu, eta dinamikaren berri eman die bertaratutakoei.

Lan-dinamika

Lan-dinamikarako, bertaratuak 3 lantaldetan banatu dira, eta talde bakoitzari Bilbo Metropolitarraren A1 plano bat, zenbait galdera dituzten fitxa batzuk eta margotzeko materiala (pegatinak eta errotuladoreak) eman zaizkio, 4 ardatz nagusitan lan egin dezaten:

- **Hiri inguruko eremuak birdentsifikatzea:** Ba al dago jada urbanizatutako eremurik? Zein dira? Zer eraikuntza-mota baimenduko zenuke eremu horietan?

- **Hiriak eta industria-eremuak birgaitzea:** Zer hiri, hirigune historiko, auzo eta industria-eremu ezagutzen dituzu gaizki zainduta daudenak eta inbertsio bat behar dutenak hobetzeko?
- **Industria-eremu abandonatuak eraberritzea:** Zure ustez, Bilboko inguru metropolitarraren zer eremu daude utzita eta eraberritzea beharko lukete? Leku horietan ba al dago ondare baliotsurik zaintzea eta balioa ematea merezi duenik? Zure ustez, leku horietarako zer jarduera izan daitezke egokienak?

Ondorioen aurkezpena, taldeka

Berrogei minutuan taldeka lan egin ondoren, talde bakoitzeko ordezkari batek ondorio nagusiak aurkeztu ditu.

Lehen taldeko ordezkarietako bat hasi da hizketan, eta hiri-eraberritzeari buruzko gaiak aipatu ditu. Azaldu du *Lamiakoko araztegiaren* inguruko gogoeta egin dutela, eta urak bereizteko sistema bat ezarriko balitz araztegiaren tamaina txikitu egingo litzatekeela, eta, horrenbestez, lurzoru-zati bat libre geratuko litzatekeela. Halaber, esan du gogoeta egin dutela leheneratutako paisaietan zer esku-hartze egin diren eta naturak zer-nolako garrantzia duen leheneratze-prozesuetan.

Hiriaren biziberritzeari dagokionez, lehen taldeko beste ordezkariak esan du industriaren goraldian itsasadarraren hegaletan eraikitako "*mendi-auzoak*" biziberritu beharko liratekeela, baina birdentsifikatu gabe.

Birdentsifikazioari buruz hizketan jarraitu du, eta azaldu du bere taldearen ustez badirela hiri-dentsitate eta dentsitate demografiko handiagoa onartuko luketen eremu batzuk, hala nola *Bilboko hirigunea* (bat edo bi koska gehiago onartu ahalko lituzke) eta *Getxoko*, *Sopelako* eta *kostaldeko beste udalerri batzuetako* biziguneak.

Bertaratutakoen artetik, taldeko beste kide batek hartu du hitza, eta azaldu du Getxo eta Gorliz arteko eremu guztiari lurzoru urbanizagarriaren klasifikazioa kentzeko premiaren inguruan ere hitz egin dutela. Ordezkarietako batek zehaztu du eremu horietan beti ez dela beharrezkoa lurzorua bizigune-erabilerarako kalifikatzea, eta enpresa-erabilerak, parke teknologikoak edota ikerketa-guneak ere onuragarriak direla.

Ana Izquierdo Lejardi andereak eskerrak eman dizkio lehen taldeari, eta **bigarren taldeari** eman dio hitza.

Talde horretakoek azpimarratu dute kontserbaziorako estrategia zehatzagoen falta sumatzen dutela estrategia guztien artean.

Ortuellan, tren-geltokiaren ondoan dagoen industria-eremu abandonatu bat aipatu dute; diotenez, eraberritze-potentzial handia du, eremu garaia da, hiri-konfigurazio konplexukoa eta biziberritzeko premia duena. *Erandion*, Asua itsasadarra aipatu dute, eta diote eraberritu ahal izango litzatekeela erabilera industrialari uko egin gabe. Halaber, ipar-ekialdean bada berdegune bat babestea premiazkoa dena, baita Astrabuduko hezegunea ere. Bestalde, *Deustuan Bilboko* itsasadarraren biziberritze-prozesuarekin jarraitzeari buruz hitz egin dute.

Deustuko garai bateko lantegi-eremuei beste erabilera batzuk ematea proposatu dute. Haien ustez, eskualde osoko plangintzak ez dira bateragarri egin, nahiz eta LPPan jasota dagoen hala egin behar dela.

Ana Izquierdo Lejardi andereak bigarren taldeari eskerrak eman, eta hirugarren taldeari eman dio hitza.

Birdentsifikazioari dagokionez, *Uribe Kosta* korridoreko familia bakarreko etxeen urbanizazioak eta *Txorierriko* eta *Ugaoko* eremuak aipatu dituzte birdentsifikatu beharreko eremu modura. Zalantzan jarri dute eremu horietako askotan beharrezkoa ote den gehiago eraikitzea.

Horren ondoren, birgaitzearen eta biziberritzearen gaiari dagokionez, *Petronorren lantegia*, *Etxebarri* eta *Galdakaoren* arteko korridorea, *Trapaga* eta *Ortuella* aipatu dituzte. Azkenik, eraberritzeari dagokionez, *Zorrozaurre* aipatu dute, eta, halaber, hirian berdeguneen korridore-sistema bat behar dela auzoak eta udalerriak lotzeko. Beren buruari galdetu diote leku horietako zenbait biziberritzeak ez ote duen bertako jarduerak gaur egun hutsik dauden lekuetara aldatzea eragingo.

Galderak

Parte-hartzaileetako batek beste udalerrri batzuetan jardutea proposatu du, eta ez bakarrik Bilbon.

Ana Izquierdo Lejardik erantzun du foro hau oso ekitaldi zehatza dela, parte hartzeko estrategia zabalago baten barruan sartzan dela, eta, hain zuzen ere, udalerrietan zuzenean lanean ari direla Erakusketa Ibiltariaren bidez; halaber, parte hartzeko dauden bideak gogorarazi dizkie bertaratutakoei.

Beste parte-hartzaile batek azaldu du bere ustez beharrezkoa dela dokumentu oinarritzko bat, parte hartzeko prozesua gidatu eta haren berri emango duena.

Ana Izquierdo Lejardik erantzun du fasearen hasiera-hasieran gaudela, eta, hain zuzen ere, oinarritzko dokumentua edo diagnostikoa lantzen ari dela. Hurrengo faseetan, dokumentua herritarren eskura egongo da, baita parte-hartze prozesuan txertatua ere. **Ángel Anero Murgak** Ana Izquierdoren erantzuna baieztatu du, eta ñabardura batzuk erantsi ditu.

Jon Aguirre Suchek parte hartu, eta berriro esan du parte-hartze prozesua hasierako fasean dagoela, non helburu nagusia jendea parte-hartzearen garrantziaz kontzientziaztea den, eta parte-hartzeari berari eta horren mekanismoei buruz hezte eta pedagogia egitea.

Berriro lehen parte-hartzaileak hartu du hitza, eta azaldu du bere ustez alde batetik desoreka dagoela lurralde-plangintza partzialen eta udaletako denboren artean eta, bestetik, ez dagoela garbi bietako zeinek duen lehentasuna.

Ángel Anero Murgak argitu du LPPak duela lehentasuna Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) aldean.

Ana Izquierdo Lejardik eskerrak eman dizkie bertaratutako guztiei, eta saioa amaitutzat eman du.